

## LABURPENA:

Gure proiektua segurtasun-mailan oinarrituta dago eta horretarako sarraila moderno bat sortuko dugu, hau da, etxeetan sartzeko giltzak erabili beharrean, hatz-aztarna erabiliko da. Gure ustez erosoagoa da, materialik ez delako erabili behar eta ezinezkoa delako inoren hatz-aztarna bikoiztea. Giltzen kopiak egiteak dirua balio du, eta proiektu honi esker diru hori aurreztu genezake; beraz, hasieran ordaindutako dirua gehiago izan arren, denborarekin errentagarria izango litzateke. Giltzak galtzearen edo lapurtzearen arazoa ekidin egiten da gure produktuari esker.